

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Eguberrietako kanpamentuak



Eguberrietako kanpamentuak

Cristóbal Balenciaga Museoak, Eguberrietako oporraldiekin bat eginez, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzako kanpamentu jostagarri eta hezigarriak proposatzen ditu, modara eta jantzien mundura oro har gerturatzeko asmoz.

Adin-tarteetara egokitutako jardueren bitartez, umeak protagonista bihurtuko dira, harritzeko aukera eskainiko zaielako, baita jakin-mina piztekoa eta esperimentatzekoa ere. Hiru saioetako bakoitza erronka bat izango da; museoan ikusgai dauden obrak ezagutuko dituzte, eta jarduerak egingo dituzte, parte-hartzaileen sormena bultzatzeko helburuarekin.

Abenduaren 26tik 27ra.

Egun guztietarako zerbitzua kontratatuko da;
ezin da izena eman saio solteetarako.

Eguberrietako kanpamentuak

Cristóbal Balenciagaren sortze-legatua balioan jarri eta parte-hartzaileei gerturatu modu ludiko eta sortzailean.

Balenciagaren obra eta museoa bera ulertu kontzeptu bizi eta mugikor gisa eta parte-hartzaileekin elkarrekintzan aritzeko gai den kontzeptu gisa.

Parte-hartzaileei gerturatu teknika, estrategia eta diskurtso artistiko garaikideak.

Prozesu artistikoen bidez banako eta taldeko lan-estrategia ludikoak eta dialogikoak proposatu.

Eguberrietako kanpamentuak

SAIOEN GARAPENA

Saioak hasteko, jolasak eta dinamikak egingo ditugu, elkar ezagutzeko eta gure gorputzak aktibatzeko. Zenbait gune aztertuko ditugu, erakusgai dauden Balenciagaren diseinu batzuk ikusiko ditugu, bai eta adierazitako edukiekin zerikusia duten beste artelan batzuk ere. Tailerretan eguneko edukien arabera egingo dugu lan, banaka edo taldean. Taldeko lanean aldaketarako edo ekintza sortzailerako aukerak planteatuko ditugu, banako nahiak edo interesak oinarri hartuta; ondoren, lan horiek besteekin partekatu, eta akordioak lortuko ditugu.

Idea eta proposamen hauek gauzatzeko, hainbat material moldakor eta iradokitzaile izango ditugu, eta material horiekin esperimentatu eta ekintza desberdinak egingo ditugu.

Azken egunean erakusketa bat prestatuko dugu egindako lanekin, familiakoei eta lagunei emaitzak erakusteko, eta, aldi berean, bizitako prozesuak ikusgai jartzeko; parte-hartzaileek beraiek egingo dituzte erakusketa bat muntatzeko behar diren zeregin guztiak.

Eguberrietako kanpamentuak

ABENDUAK 26

- 9:30 Agurra, aurkezpen-jolasak eta egunaren azalpen laburra.
- 10:00 Dinamikak areto batzuetan, Museoa eta Balenciagaren zenbait lan ezagutu eta aztertzeko. Dinamiketan sartuko ditugu eguneko tailerretan landuko ditugun edukiak.
- 11:00 *Metafora bisualak* tailerra. Banako lana izango da, eta collagearen eta marrazkiaren bidez esanahi eta forma berriak emango dizkiegu Balenciagaren diseinuei.
- 11:30 Hamaiketakoa
- 12:00 *Espazioa, gorputza eta arropa* tailerra. Erabiltzen ez diren jantziak erabiliz eta horiekin eta gure gorputzekin jolastuz, harreman berriak sortuko ditugu gorputzen eta inguruko espazioaren artean. Talde txikietan egingo dugu lan, aurrez aukeratutako museoko toki jakin batzuetan, eta jardueren argazkiak egingo ditugu.

ABENDUAK 27

- 9:30 Aurreko egunaren errepasoa. *Gure jantziak* instalazioa egiteko aukera, etxetik ekarritako jantziekin.
- 10:00 Janzkia sorkuntza artistikorako erabili duten artelan garaikideak ikusi eta aztertu.
- 10:30 *Arropa birdefinituz* tailerra egiteko proposamena. Gure instalazioak, eskulturak edo esku-hartzeak sortuko ditugu arroparekin. Jantziak modu askotara manipulatu ditugu, bizi berria emango diegu, lotura eta esanahi berriak. Talde txikietan lana.
- 11:30 Hamaiketakoa
- 12:00 Erakusketa antolatu eta saioen balorazioa egin.
- 13:15 Erakusketaren inaugurazioa. Familiakoekin eta lagunekin topaketa, emaitzez gain, bizitako esperientziak eta prozesuak partekatzeko. Amaierako agurra.

IRAKASLEA

Bitartean



Bitartean kolektiboak hezkuntza artistikoaren eta bitartekaritza kulturalaren alorrean lan egiten du Nafarroan, eta diziplina anitzeko prestakuntza duten eta hezkuntzaren eta sormen artistikoaren alorrean esperientzia zabala duten profesionalek osatzen dute.

Ikusizko arteekin zuzeneko lotura duten hezitzaile, artista eta profesional gisa, gizartea prozesu artistiko garaikideekin lotzeko proiektuak garatzeko konpromisoa dute, kulturako eta hezkuntzako sektoreen arteko elkarriketari garrantzia emanez.

www.bitartean.org

INFORMAZIOA

DATAK

Abenduaren 26tik 27ra

Egun guztietarako zerbitzua kontratatuko da; ezin da izena eman saio solteetarako.

ORDUTEGIA

9:00 - 13:30

Kanpamentuaren azken egunean ate irekiko jardunaldia egingo da (13:00etik 13:30era), familiek parte-hartzaileek astean zehar egin dituzten lanak ezagutu ditzaten.

PARTE-HARTZAILEAK

6 eta 12 urte bitarteko umeei.

I. Taldea: 6-8 urte.

II. Taldea: 9-12 urte.

HIZKUNTZA

Euskara/gaztelania.

MATRIKULA

65 euro, eta abenduaren 2a baino lehen egindako izen-emateak 55 euroko kostua izango dute. Familia bereko ume gehigarri bakoitzeko, %10eko deskontua aplikatuko da dagokion tarifyan

ANTOLAKUNTZA ETA DATU PRAKTIKOAK

Bi lantalde egingo dira, adinaren arabera: 6tik 8 urtera artekoen taldea eta 9tik 12rakoena.

Proposatutako saio eta jarduerak museoko bi hezitzailearen zaintzapean egingo dira, eta Maushaus taldekoen laguntza izango da eguneko jarduera nagusia egiteko. Saio guztietan jolaserako, atsedenerako eta hamaiketakoa egiteko astia egongo da.

Mesedez, parte-hartzaileen familiek ekar ditzatela hauek:

- Hamaiketakorako mokadua, egun bakoitzerako.
- Mantala edo antzeko zerbait.
- Adieraz ezazue, museoko taldea jakinaren gainean egon dadin, haurren beharrei egoki erantzuteko jakin beharreko informazioa.

LEKU-KOPURU MUGATUA

EZINBESTEKOAK DA IZENA EMATEA

Izena emateko epea abenduaren 16ra arte egongo da zabalik. Parte-hartzaileen gutxieneko kopurura iritsi ezean, jarduera bertan behera gelditu dela jakinaraziko diegu interesdun guztiei, eta ordaindutako zenbatekoa jasotzeko aukera izango dute.

HARREMANETARAKO


T 943 008 840

didaktika@crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com



Biarritz — 71 km
Bilbao — 81 km
Donostia/ San Sebastián — 25 km
Iruña-Pamplona — 97 km
Vitoria-Gasteiz — 83 km

GPS
43° 18'6.92" N
2° 12' 18.77" W



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

